

Jean-Pierre
Duvoisin

1810-1891

BIDeGILEAK


Egilea:

Elena Touyarou Phagaburu

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko jasotako laguntzagaririk, eskerrak eman nahi dizkie:

- Ainhoako Elso familiari
- Heletako Xipri Arbelbideri
- Ainhoako eta Ezpeletako herriko etxeetako idazkari anderei
- Bardozeko Odette Laborde andereari

Zuzendaritza: Jerardo Elortza
Argitaraldia: 1.a, 2010eko abendua
Ale-kopurua: 2.300
© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Argazkilaria: Edorta Sanz
Fotokonposizioa: EPS, S.L., Vitoria-Gasteiz • www.eps-grupo.com
Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A., Vitoria-Gasteiz • www.graficassantamaria.com
ISBN: 978-84-457-3103-1 (Lan osoarena)
978-84-457-3105-5
L.G.: VI - 541-2010



JEAN-PIERRE DUVOISIN

(1810-1891)

Euskal letretan Jean-Pierre Duvoisin edota Duvoisin kapitaina deitua izan zen lapurtar idazleak ofizialki Jean zuen izena. Menturaz izen bertsua zuen aitarekin ez nahasteko zioten gehitu bigarren izena, bataiatzean.

Jean Duvoisin «Homme de lettres» hitzak zizelkatu zituzten Ezpeletako hilobian, pertsonaia honen bizian literatura lanek aduanako kapitain graduak baino zorion eta ospe gehiago ekarri ziotela ulertaraziz.

Biblia osoki euskaratzeak bospasei urte hartu zizkion eta lan horrek beste sorkuntza lanak doi bat itzalpean utzi zituen. Haren gutun, artikulu, itzulpen eta sorkuntza lanek garai hartako euskal letren idazle handienetako bat bihurtu zuten.

Familia aberatseko seme honek XIX. mendearen erditik aurrera gizon eskolatu, hizkuntzalari jakintsu eta idazle nekaezinenaren fama bildu zuen.



Bizitza xehetasunak

«Machicotenea» Duvoisin familiaren egoitza ohia, orai lapurtar etxe apaina

JATORRIA ETA LEHEN URTEAK

Orduko intelektualek lapurteraren maisutzat zeukaten. Izan ere, Duvoisin Lapurdin sortu, eskolatu eta, gehien bat, bizi izan baitzen. Berak, ordea, 1879an Arrese Beitia bizkaitar poetari igorri gutun batean bere buruaz hauxe zioen: «Ethorkiz Nafarrako, sortzez Ainhoar, Bayonan dagona».

Ethorkiz Nafarroako ala Lapurdiko?

Zaila gerta daiteke «du voisin» deitura ongi ahoskatzea, fonema guziz frantsesez osatua baita. Bi hitz horiek zerbait edo norbait auzoarena dela adierazten dute. Deitura arrotzarengatik sendi ote zuen 69

urteko gizonak bere arbasoen aspaldiko euskalduntasunaren frogatzeko beharra?

Aitaren aldetik Baionako

Idazlearen aita, Jean-Baptiste Duvois(a)-in (1755-1830), Laurent Duvois(a)in eta Jeanne Lahirigoien bikotearen semea, Baionako Santa-Ezpiritu auzoan sortu zen. Garai hartan Landesetako departamenduan ekarria zenez, ezin jakin haren etxeoak euskaldunak zirenetz ala okzitaniaraz, «kaskoinez», mintzo ziren.

Amaren aldetik Ezpeletako

Idazlearen ama, Jeanne-Marie Gorostarsou (1774-1842), sortzez ezpeletarra zen.



Ezpeletako «Elissaldea» Soubiboure,
De Gorostarzou eta Duvoisin familien etxea

Baztan aldeko familia ospetsu bateko semea zuen aita; hau zen, beraz, «ethorkiz Nafarroako». Jean (Joanes) Gorostarsou herriko kirurgilari edo «barbera» zen, «maître en chirurgie» tituluduna.

Amaren ama ere familia oneko alaba zen eta Gorostarsou bikotea Soubiboure «Bake Juje» (Ararteko) jaunaren etxean finkatu zen Ezpeletako «Elizaldia»n. Amaren aitamak hain «jende kontsideratuak» izan ki herrian, ethorkiz Lapurdiko idatz zezakeen, beraz.

Sortzez ainhoar

Jean-Pierre Duvoisin Ainhoako «Machicotenea» etxean sortu zen 1810eko maiatzaren 17an. Jean-Baptiste Duvois(a)in Ain-




Aita mugazain bulegari izan zen Ainhoan
eta ondoren Ezpeletan

hoako aduanako mugazain bulegariak «receveur des douanes nationales au bureau d'Ainhoua» eta Jeanne-Marie Gorostarsou etxeko andreak bost haur munduratuak zituzten jadanik: lau alaba —Marie-Anne (1804), Jeanne-Alexandrine (1806), Jeanne-Amélie (1807) eta Marie-Henriette (1808)— eta seme bat —César (1805)—.

Haur denboran Ezpeletako

1812an, aita Ezpeletako aduanara igorri zutelako-edo, familia auzo herri horretara joan zen bizitzera eta «Elizaldia» amamaren sortetxean finkatu. Mutikoak Ezpeletan iragan zuen, beraz, haur denbora osoa. Aita auzapez zenetik, familiaren deitura ere entzutetsuago bilakatu zen herrian.



1830ean hil zen Ezpeletako auzapez zen idazlearen aita

Dena den, Ezpeletan «jende kontsideratuak» izan arren, ezagutu ez zuen aitatxi baztandarraren *ethorkia* aipagarriagoa zitzaien.



Maurice Harriet haltsuar idazlea, De Gorostarzhou aldetik ahaidea, ikaskide eta adiskide mina zuen

Nerabezaroan Larresoroko

Lehen mailako ikasketen ondotik, Ezpeletatik hurbil zegoen Larresoroko apaizgaitegira bidali zuten 1823-1824 ikasturtean, bigarren mailako ikasketen egitera, César anaia zaharragoaren ildotik. Ontasunak bazituzten, familiek han eskolatzen zituzten apezteko xederik ez zuten semeak ere.

Seminarioko artxiboen arabera, hiru urtez ikasle ertaina izan omen zen. Izugarritzko irakurzaletasuna zuen, inolako kontrolik gabea. Literatura eta historia zituen, batez ere, gogoko. Dena den, azken urtean (bere anaia ukan zuelarik irakasle!) lanari lotu eta ikastegiko sari ederrenetarik bi erdietsi zituen: frantsesetik latinerako itzulpenean eta



Ainhoa J. P. Duvoisin eta haren haurrideen sorterria

frantseseko olerkian. Bestalde, han euskaltzaletu omen zen.

Harreman onak zituen Jean-Martin Hiribarren adin bereko azkaindarrarekin eta Maurice Harriet 1814an sortu haltsuarrarekin. Biak apaiztu ziren gerora eta lan bikainak taxutu zituzten euskaraz: poesia arloan lehenak eta lexikografian bigarrenak.

Seminariotik atera eta zein ikasketari heldu asmatu ezinik egon zen hainbat denboran. Amak medikuntza ikasteko gomendatzen zion; aitak semearen esku utzi zuen erabakia. Gertakari latz batek, ordea, arras aldatu zuen egoera.

JEAN DUVOISIN MUGAZAIN (1830-1856)

Jean-Baptiste Duvois(a)in, Ezpeletako auzapeza, 1830eko maiatzaren 8an hiltzean, zerbait pentsatu beharrean aurkitu zen hogeituro urteko gaztea. Baldintza berri haietan, eta besterik ezean, aitaren lanbideari atxikitzea deliberatu zuen semeak: aduanako funtzionario izatea, alegia.

Aduanako dozierrak agertzen du Duvoisin mugazaina nolakoa zen fisikoki eta izaeraz. Ez zen gizon handia (1,59 m). Ile horia zen, kopeta gora, bekainak luzeak, begi ilunak, sudur handia, aho ttipia, kokotsa zabal,



Dantxaria Ainhoa herriko auzotegia, Lapurdi eta Nafarroaren arteko zubia



Xiberuko Ligi herriko aduana: brigadier gaztearen lehen lanpostua

aurpegia luze eta larrua gorri: «blond, front haut, sourcils longs, yeux châains, nez grand, bouche petite, menton plat, visage allongé, teint coloré».

Behin eta berriz azpimarratuak dira, bestalde, haren nortasun azkarra, ikasketa maila ona, bai eta familia ondasunak.

Mugazain soil edo «brigadier» zazpi urtez

Haren ibilbidea jarrai daiteke ikuskatzailen txostenak eta berak idatzitako gutunak irakurriz. Zuberoan ukan zuen lehen postua: hasieran Ligi herrian egon zen eta berantago Atharratzen.

Ondoren Base Nafarroan ezagutu zuen Lasa eta Heleta, besteak beste. Lapurdin Sara,

Olheta, Arrangoitze, Uztaritze eta Donibane Lohizunetik pasatu zen. Mugazainak lanpostuz noiznahi aldatzen zituzten herri-tarrekin harreman pertsonalik ez josteko gisan. Beraz, Iparraldeko hiru probintzietako muga herrietan «brigadier» egon zen zazpi urtez, kontrabandistekilako hika-miketean euskalkien ñabardura eta itzuli herrikoienak bereganatuz.

Ozkaz goratzeko uharteetara joan...

1837ko abenduan graduz goratzeko eta munduaren bisitatzeko, «lieutenant» zegoenak Baionako Zuzendariari eskatu zion kolonietara izenda zezan (Bourbon uhartera edo Martinikara), azpimarratuz 27 urte beteak zituela eta «azkenean, etxekoan baimena erdietsi zuela».




Larresoroko apezgaitegia edo «Seminario ttipia» lapurtar idazle entzutetsuen mintegia

...ala aduana utzi?

Izendapen hori ukatu zioten nonbait, eta bere ametsa bete ezinean, aduana utzi eta Uztaritzeko «Bake Juje», Bake Epai-le, postua eskatzeko xedea agertu zuen. Uztaritzeko arduradunak 1842/03/11ko gutunean anaiari leporatzen dio hobena: «M. Duvoisin n'a fait que céder aux instances réitérées de son frère aîné».

Baina aduanan segitu zuen eta Uztaritzeko ikuskatzailearen 1842ko txostenak 1000. ozkan zegoen Duvoisin «lieutenant» jaina kapitain gradura hupatzeko proposamena egin zuen.



Duvoisinen idazkera eta sinadura uharteetara joateko eskutitzean

Promozio gorena eta ezkontza (1850)

Heletako kasernan zegoen 40 urteko kapitaina, 1850eko urtarrilaren 22an Rosalie Chateaneuf 28 urteko eta familia oneko alabarekin ezkondu zenean. Hau Baionako Port-Neuf karrikako 33an bizi zen, gurasoak Georges Chateaneuf eta Marianne Pey zituelarik. Pierre-Jules Chateaneuf (Bordale, 1814 - Biarritze, 1879) 1871-1874 eta 1874-1878 urteetan Baionako auzapez izan zenaren ahaideak ziren.

NOTES FOURNIES SUR LA CONDUITE DU PROPOSÉ.			
DATES DES ÉTATS de réglemens.	PAR LE CONTRÔLEUR DE BORDAUX.	PAR LE SOUS-INSPECTEUR.	PAR L'INSPECTEUR.
1 ^{er} Janvier 1856.	Objet de l'inspection sur la conduite de M. de la Roche-Beaucourt dans son poste de contrôleur de Bordeaux.		Travaux de M. de la Roche-Beaucourt dans son poste de contrôleur de Bordeaux.
1 ^{er} Mars 1856.	Objet de l'inspection sur la conduite de M. de la Roche-Beaucourt dans son poste de contrôleur de Bordeaux.		Travaux de M. de la Roche-Beaucourt dans son poste de contrôleur de Bordeaux.
1 ^{er} Mai 1856.	Objet de l'inspection sur la conduite de M. de la Roche-Beaucourt dans son poste de contrôleur de Bordeaux.		Travaux de M. de la Roche-Beaucourt dans son poste de contrôleur de Bordeaux.
1 ^{er} Juin 1856.	Objet de l'inspection sur la conduite de M. de la Roche-Beaucourt dans son poste de contrôleur de Bordeaux.		Travaux de M. de la Roche-Beaucourt dans son poste de contrôleur de Bordeaux.

Aduanako dozier administratiboan
sujet d'élite ekarria da

Heziketa Gizon gazte ongi hezia, bere seme-alabei ontasunak utzi dizkien Ainhoako « receveur » zenaren semea.

Nortasuna, Sendoa baina eztaia, zuzena ; baina burgoitasun eta burujabetasun aski badu eta bere buruaz doi bat hartua, euskaldun guzien pare.

Jakitatea :

- klasikoa** : Ikasketa onak egin ditu eta baliatzen zaio. Bere ikasketa klasikoen maila dibisioneko beste buruzagi, kapitain nahiz lieutenant askorena baino aise goragoa da.
- administratiboa** : orokorki jakintza hau beretua du.

Jokamoldea :

- klasikoa** : laguntzeari emana eta bere buruaren agertzeko aukera guzien zain, behar orduan joera hortaz probetu handia atera daiteke.
- **privatua** : Biziki ona, arlo guzietan.

Familia egoera :Garantiak, etxeko ontasun aldetik aiseria

Promozioak : Eskubideak baditu, ongi merezituak. Nahi luke 1200 ozkara pasatu, Baionako Zuzendaritzan egonez, geroan osoki Administrazioaren meneko jartzeko. Lehen mailako Kapitain bikaina izanen da.

Ahalmenak : Brigadetan atxiki behar da.

Itzulpena: Elena Phagaburu

Aduanako dozierrean gizonaren aipamen zehatza aurkitzen da. Jakitatea eta ontasunak ere agertzen ditu dozierrak

Bikotea Heleta «Urreltzia» etxean finkatu zen. Han sortu lehen alaba Henriette (1852). Geroztik munduratu ziren Marie (1854) eta Jules, haur denboran eritasunez hil zen seme bakarra. Ondoko urteetan, Duvoisin bikoteak Baionako apezpikutegi ondoan zuen egoitza, ez beti han bizi izanagatik.

URTE NEKEAK (1856-1860)

Administrazioaren soka-tiran (1856-1858)

Baina beste aldaketa garrantzitsu bat ere aldi honetan iritsi zitzaion kapitainari, Louis-Lucien Bonaparte ospetsuak Biblia euskaratzeko eskaintza egin zionean. Hori dela-eta, Duvoisin kapitainak «lan atsedean» goiztiarra eskatu zuen bere lanbidean. Pentzio duina eskuratu ahal izateko, negoziaketak luzeak izan ziren, 1858 urte hondarerraino iraun baitzuten.

Koinatuarekin auzitan (1859)

Gainera, aitagarreba hil ondoan andrea-ren anaia abokatuak auzitan eman zuen:

1859/05/05ean «je ne puis vous envoyer plus de douze feuillets du manuscrit de la Bible. Je prépare les pièces du procès», jakinarazten dio L. L. Bonaparteri, hau da, ezinezkoa zaiola Bibliaren itzulpenean aurrerapen handirik egitea, auziarentzat behar zituen dokumentuen prestatzen ari delako.

1859ko uztailean bukatu bide zen koinatuarekin zuen afera: «J'irai à Bayonne le 29 et, le 4 suivant, à Bardos, pour terminer

<p>Jean DUVOISIN et Rosalie CHATEAUNEUF</p>	<p>arrondissement de Bayonne, département des Basses-Pyrénées, sont comparus Sieur Jean DUVOISIN, âgé de <i>trente-neuf ans</i>, <i>capitaine des Douanes</i>, domicilié à <i>Hélette, département des Basses-Pyrénées</i>, né à <i>Ainhoa, même département</i>, le <i>dix-sept mai mil huit cent dix</i>, fils <i>majeur</i> de feu Sieur Jean Baptiste DUVOISIN et de feu Dame Jeanne Marie GOROSTARSOU, conjoints, <i>ayant aussi perdu ses aïeux paternels et maternels</i>, d'une part.</p> <p>Et Demoiselle Rosalie CHATEAUNEUF, âgée de <i>vingt-huit ans</i>, <i>sans profession</i>, domiciliée <i>dans cette ville y résidant</i>, avec ses père et mère, <i>rue Port-Neuf n° 33</i>, née à <i>Bayonne, département des Basses-Pyrénées</i>, le <i>quatorze décembre mil huit cent vingt-un</i>, fille majeure de Sieur Georges CHATEAUNEUF, <i>propriétaire-rentier</i> et de Dame Marianne PEY, conjoints; <i>autorisée et assistée par ses père et mère</i>, d'autre part.</p> <p>Lesquels nous ont requis de procéder à la célébration du mariage projeté entr'eux, et dont les publications ont été faites tant à <i>Hélette</i>, que devant la principale porte de la mairie de cette ville, les <i>Dimanches six et treize de ce mois, à midi</i>: aucune opposition audit mariage ne nous ayant été signifiée, faisant droit à leur réquisition, et après avoir donné lecture des pièces qui nous ont été remises par les parties, et du Chapitre VI, contenant les droits et les devoirs respectifs des époux, du titre du code civil, intitulé du mariage, avons demandé au futur époux et à la future épouse, s'ils veulent se prendre pour mari et pour femme, et chacun d'eux, ayant répondu séparément et affirmativement, avons déclaré au nom de la Loi, que Sieur Jean DUVOISIN et Demoiselle Rosalie CHATEAUNEUF, sont unis par le mariage.</p> <p>De quoi nous avons dressé acte, en présence de Messieurs Pierre SEIZE, âgé de <i>soixante ans</i>, <i>propriétaire-rentier</i>, Constant Fidèle de MOURDUIT, âgé de <i>cinquante ans</i>, <i>capitaine en retraite</i>, Thomas Julien JEGU de la BUSSONNIÈRE, âgé de <i>quarante-neuf ans</i>, <i>vérificateur des Douanes</i>,</p>
---	--

Kapitainak andrea gazteagoa eta familia onekoa aukeratu zuen



Rosalie Chateaufeuf ezkontidearen etxea, Baionako Bourgneuf karrikaren 33a




Heletako «Urreltzia» izan zen
 Duvoisin-Chateauneuf bikotearen lehen egoitza


l'affaire de la succession de mon beau-père»
 (1859/06/26).

Semearen heriotza (1860)

Damurik, ez ziren aipaturiko horiek orduan izan zituzten buruhauste eta zoritxar bakarrak, lazgarriagoa ere etorri baitzitzaien. 1860ko urtarrileko gutun batek agertzen du urtea kezka larri batekin hasi zutela: «Baionan naiz, hiltzen ari zaidan haur baten ondoan. Sendatuko da agian». Ondikotz, Jules seme bakarra hil zitzaien.



Zuzendaritzari igorri azken gutunetarik bat 1858 /XII/31



Ekaina elkarteak argitaratu «Bardoze» monografiaren 55. orrialdean aipu da Duvoisin

BAKARTASUNAREN HAMARKADAK (1860-1890)

Bardozeko urte gazi-gezak

Aduanako soka nekez eten eta familiarekin makurtu ondotik, semearen heriotzak zafra-tu zuen kapitainak Baionatik urrundu nahi



Bardozen orduan «Etxebeheitia» eta orai «Sallagoiti» izendatu etxe baketsuan itzuli zuen Biblia

ukan zuen, giro baketsuagoaren bila. Bardoze herriko «Etxebeheitia» deitu etxean bizi izan zen 1860tik goiti, koinatu abokatuak beretu baitzituen Bardozeiko ondasunak. Lapurdiko herri horretan zendu zitzaion andrea 1876ko abenduaren 12an.

Handik zenbait urtetara (1882an) Bardozen ezkondu zitzaion alaba gehiena, Dajas medikuarekin. Ordutik, bakartasun dorpean aurkitzen zela zioen, «andrea galdurik, umeak barraiaturik, neroni bakhar-bakharrik gelditu naiz... nahigabeen ahanzteko gizonak behar du maite duken lanari berriez lothu».



Duvoisin idazlea

Ainhoako Arantzeta basiliza,
muino gainean herriaren zaindari

GUTUN ETA ARTIKULU IDAZLE EMANKORRA


Antonio Abadia, Louis-Lucien Bonaparte printzea nahiz Felipe Arrese Beitia adiskideari igorritakoak ikusiz, pentsa daiteke bizi osoan izan zela gutun idazle trebe eta joria.

1840ko hamarkadaren hasieratik aldizkari eta egunkari ezberdinetan idazten zuen erregularki: *Bulletin des Sciences, Lettres et Arts*, *Le courrier de Bayonne* edo *La sentinelle* izenekoetan, adibidez. Orduan ezagutu omen zuen, Agustin Xahoren bitartez, Antonio Abadia zientzilari eta euskal kulturaren mezenas famatua. Anartean, «briga-

dier» zenetik «hiztegi pertsonala» osatzen hasia zen. Ondikotz, lexikografia saileko lan hori ez zen sekulan publikatu.

Beraz, Louis-Lucien Bonaparte printzea lehen aldikotz Euskal Herrira etorri orduko, aski ezaguna zen kapitaina Iparraldeko euskaltzaleen artean. Printzearen asmoen berri jakin bezain laster, Abadiak Bonaparteri aurkeztu zion Duvoisin Donibane Lohizunen 1856an. Orduantxe ekin zioten biek lan-harreman luze eta aberatsari.

Jean Duvosinen euskarazko ekoizpena bi atal nagusitan sailkatu ohi da. Batetik, sorkuntza-lanak eta, bestetik, itzulpenak eta egokitzapenak.



Baigorriko zazpi liliak J. San Martinen argitalpenerako (Elkar, 1987) Ignazio Trekuk egin potreta

EUSKARAZKO SORKUNTZA-LANAK

Izulpen-arlokoak ugariagoak izan arren, Duvoisinen sorkuntza-lanak ere garrantzia aipagarria dute gure literaturan. Tankera desberdinetako bi obra idatzi zituen hitz lauez aldi desberdinetan: *Baigorriko zazpi liliak* (1832) eta *Laborantzako liburua* (1858).

Hala ere, *Baigorriko zazpi liliak* ez zen idatzitako garaian argitaratu, askoz berantago baizik. Elkar argitaletxearentzat 1987an paratu zuen obra honen edizioan Juan San Martin euskaltzain zenak es-

HERJAUNAREN HITZAK

Herriko Zazpi Liliak akabatu zutenean zeinek bere kondera, han ziren guziek etzuten aski aho heien laudorioaren egiteko. Herjauna orduan hunela mintzatu zen:

«Ez dut aspaldian horrenbertze atsegin hartu nola gaurko gauan. Milesker, andreak; Liliak deitzen zaitzute; bainan legez zarete lili eder maitagarriak. Hobekienik mintzatuko zenari agindu diot ezkontzeko dotea; nork lakike zuen artean berezten? Batzuek ezik nola bertzeek atsegin bera eman izan darokuguzue. Erran nuen, kondera luze edo labur izan zadien etzela axola, gogaragarria izan zadien ber. Alde orotarik aditzen dut bardin atsegingarri izatu zaretela; beraz sari bera duzue merezi. Ene gogoa da aurten ezkontarazteko ene alaba andrea. Egun berean, oren berean, esposatuko duzue zeronen gogoko izanen den gizon gaztea.

Bainan zu, ene alaba maitea, ixilik egotu zare; zurerik ez darokuzu erran deusere. Eta bada, zure ama zenak (Jainkoak bere lorian duela) bazakitzen nihonereko kondera ederrak. Bat baino gehiago aditu duzu haren ahotik. Orai litake ordua guri hetarik baten errateko zure hautura».

«Herjaunaren hitzak» izenburupean, liburuaren bukaerako zati bat

plikatu zuen nola 1884-1885era arte ez zen kaleratu. Eta orduan ere, zatika aldizkari bateko zenbaki desberdinetan, ez liburu gisa. Izenburua elebiduna zuen eta Julien Vinson-ek 1898ko *Essai d'une bibliographie basque* obraren II. tomoan, titulua-
ren frantsesezko zatia besterik ez zuen kopiatu, idazlearen izena gehitu gabe, eta, gainera, aldizkariaren sailean. Ondorioz, euskal ikerleek erdara hutsezko obratzat hartu zuten.



Bizimoldearen lekukotasuna dakarren liburua

Zortzi zatitan banatutako fikzioa da, «Etxauzea» jauregian kokatua. Artazuriketa-gau-beila batean Baigorriko jaunak ipuin politena kontatzen duenari saria emango diola agintzen du: ezkontza-dotea, alegia. Zazpi neska lehiatzen dira; bakoitzak ipuin bat kontatzen du eta bukaeran jaunaren alabak ere bai. Ipuinok, nahiko ezagunak batzuk, erraz txertatzen dira narrazioaren harian. Berandu eta era ez oso egokian kaleratu zen arren, nabarmentzekoa da Duvoisinin lantxo honek euskal narratibaren historian duen garrantzia.

Laborantzako liburua oso bestelakoa dugu. Ez da lan literarioa, pedagogikoa eta dibulgaziokoa baizik. Duvoisinekin, laborari izan gabe, oso ongi ezagutzen zuen baso-eta laborantza-mundua, ez baitzuen alferrik lan egin, mugazain gisa, hogeita bost urtean basomutil eta nekazarien artean. Bere eginkizunak zirela-eta, baserri-giroko herrietan ibiltzea egokitu zitzaion gehienetan. Bazekien zeintzuk ziren laborarien eginbeharrak eta premiak; haien alde onak eta ez hain onak. Beraz, eurei laguntzeko xedearekin, eta informazioa leku eta iturri askotatik jasota seguraski, moldatu zuen obra erraz eta praktiko hau.

Baionan agertu zen 1858an, *Laborantzako liburua*, edo *bi aita semeren solasak laborantzaren gainean* izenburuarekin. Tituluak garbi adierazten duenez, elkarrizketa moduan egituratua dago, garai hartako beste hainbat liburu bezalaxe. Egia esan, elkarrizketa baino gehiago bakarrizketa da usuago, aita baita hitz egiten duen jakintsua eta semea galdetu edota aitak erranak entzun eta onesten dituen. Lehen edizioko ia lauhun orrialdeetan zehar, laborantza edo honen inguruko gai



andana jorratzen dira berrogeita lau ataletan: lur-motak, gariari buruzko xehetasunak, jorrocketak, uzta-klaseak, belarrak, ongarriak, urteko lanak, abere-mota desberdinez mila argibide, oihan eta basoen ingurukoak, besteak beste.

Liburua L. L. Bonaparteri eskainia dago, ordurako harremanetan baitzen printzearekin. Euskara erraza, baina aldi berean aberatsa eta zehatza darabil Duvoisinek, gaiari ondo egokitzen zaiona. Aldi hartako gizar-tearen miraila ere bada neurri batean. Nahiz eta itzulpenetan ere maisua izan, hemen ainhoarra aiseago eta askeago dabilela esan daiteke. Dena dela, Jean-Pierre Duvoisin,

eta bere sorkuntza-lanen inportantzia handia ukatu gabe, gaur egun itzultzaile trebe eta oparo moduan gogoratzen dugu.

ITZULPEN-LANAK

Gazterik ekin zion Jean-Pierrek itzulpen-gintzari, Larresoroko seminariotik atera eta laster. François Fenelon idazle frantsesak XVII. mendearen hondarrean publikaturiko *Telemaque* obra klasikoa euskaratzea izan zen lehen saioa. Frantsesezko bertsoiak dituen hogeita lau «liburu» edo ataletatik erdiak bihurtu zituen gure hizkuntzara: hamabi, alegia. Argitaratu gabe geratu zen



Erlisioneari
lotu bi liburu

BIBLE SAINDUA

VERSION EUSKERICA DE LA VULGATA
REALIZADA POR EL CAPITAN DUVOISIN

Ilustrada en esta segunda edición facsímil de la primera con medio millar de preciosos grabados antiguos de Gustavo Doré y otros artistas

Bibliaren itzulpena eta ondorengo urteak

BIBLE SAINDUA, BERE BIZITZAKO LANIK MARDULENA

Gorago aipatu denez, 1856an izan zituen Duvoisinek lehen harremanak Louis-Lucien Bonaparte printze hizkuntzalari eta euskaltzalearekin. Harrezkero urte askoan jardungo zuten biek elkarlan oparoan: hizkuntzalaria eragile eta zuzendari bezala eta idazlea lankide nekaezin gisa. Batez ere, 1858an mugazaintzako lanak alde batera utzi eta buru-belarri itzulpengintzari ekin zionean. Enkargurik garrantzitsuena, du-darik gabe, Biblia Lapurdiko euskalkira itzultzea izan zen. Baziren, bai, ordurako euskarazko itzulpen biblikoak: adibidez,

J. Leizarragarena (1571) edota J. Haranederrena, XVIII. mendearen lehen erdialdean egin eta 1855ean argitaratutakoa. Biek, ordea, Testamentu Berriko testuak soilik zekartzaten. Oraingoan, berriz, eskritura santuak osorik itzularaztea agindu zuen Bonapartek. Hori bai, lapurtera garbi eta jatorrean behar zuen izan, printzeak euskararen dialekto desberdinen mapa zehatza eta sailkapen zientifikoa burutzea lor zezan.

Euskal Herri guztian beste hainbat lankide izan zuen Louis-Lucienek bere inguruan: Jose Antonio Uriarte Bizkaian, Klaudio Otaegi Gipuzkoan, Bruno Etxenike Nafarroan, Manuel Intxauspe Zuberoan eta beste asko. Baina Duvoisin izan zen, be-



L. L. Bonaparte (1813-1891)

harbada, Bonaparteren langilerik zintzo eta emankorrena, beste zeregin guztiak bazterturik, zeharo murgildu zelako printzearen asmoak aurrera ateratzen. Honek soldata finko bat lortu zion Frantziako Hezkuntza Nazionaletik. Horrek sustatu zuen Aduanako lanpostua uztera.

Lan baldintzak adostu zituzten, besteak beste, bost urteko epean eginen zuela Bibliaren itzulpena, atalka igorritz Londredera, Bonapartek argitara zezan. Kapiteinak berak aitortzen zuen gertakari honek zeharo irauli zuela bere bizimodua. Horrela dio 1864/01/10eko gutunean: «Vous m'avez tiré de la fosse, pour me placer dans un cabinet où je me livre à des travaux bien-

aimés». Erran nahi baitu: «Ziputik atera nauzu gustuko lanetan arituko naizen gabinetean sartzeko». Aduanatik alde egiteaz ez zen batere damutzen, beraz.

Bost urtean ez, baina bai seian erdietsi zuen Duvoisenek printzearen enkargua betetzea Bardozeko egoitzako lasaitasunean. Itzultzaileak editoreari euskarapeña zatika helarazi ahala, bost emanalditan ezagutu zuen argia Londresen, 1859 eta 1965 bitartean, ondoko izenburu luze honekin: *Bible saindua edo Testament zahar eta berria. Duvoisin kapitainak latinezko Bulgatatik lehembiziko aldizko Laphurdiko eskarara itzulia. Luis-Luziano Bonaparte printzeak argitara emana.*

Bonaparteren argitalpen-irizpideak ez ziren erlijiosoak, linguistikoak baizik, eta ondorioz edizio nahiko mugatua egin zuen, esparru akademikoetan banatzeko, gehien bat. Arrazoi berberengatik ez zuen Elizaren oniritzik eskatu publikaziorako eta horregatik, doktrina aldetik itzulpenak inolako aitzakiarik eduki ez arren, ez zuen baimenik katolikoen artean ofizialki erabili ahal izateko. Edonola ere, 1868tik aurrera protestanteen elkarte biblikoek ebanjelioak eta Bibliaren beste zati

batzuk zabaltzeari ekin ziotenean, Duvoisiin bertsioan oinarritu ziren gehien bat.

Arestian adierazi denez, aurretik ere trebatua zen Duvoisin halako eginbeharretan. Baina Bibliaren lan eskerga honetan aitzina egiten zuen heinean, bere trebezia areagotu egiten zitzaion. Kritikoan ustez, Testamentu Zaharreko lehen liburuetatik Testamentu Berrikoetara nabaria da progresio hori. Bonaparte bera ere konaturatu zen horretaz. Hala eta guztiz ere, itzulpen bat ez da sarritan testurik proposena hizkuntza baten gaitasunak eta baliabideak erakusteko. Are gutxiago, jatorrizko idazkia Biblia bezalako izkribu finkatua eta ukiezina denean eta, gainera, itzultzaileari euskararen dialekto bakar eta nahasigabeen moldatu behar dela eskatzen zaionean. Dena den, sorkuntza-lanetan lasaiago ari dela egia den arren, oso airoso ateratzen da Duvoisin itzulpen gaitz honek dakarkion erronka zailetik.

GARAI BEREKO BURUHAUSTEAK

Bardozeke egonaldi hark emankorra bezain zoriotsua izan behar zuela zirudien,

BIBLE SAINDUA,
edo Testament Zahar eta Berria,
Duvoifin kapitainak latinezko Bulgata-
tik lehembiziko aldiko Laphurdiko
eskarara itzulua. Luis-Luziano
Bonaparte printzeak
argitara emana.

*“Jaunaren bitzak, bitz garbiak dira, zilar suaz ikbartua, larrezko
untzian frogatua, zazpi aldiz gorbisua.”—Psal. xi. 7.*




L. L. Bonapartek Londresen argitaratu Bibliaren lehen edizioa

baina lehentxeago familiarekin izandako atsekabeez gain, gure idazleak eduki zuen bestelako burukominik ere.

Diru arazoak

Louis-Lucien Bonaparte Napoleon I.aren iloba eta Napoleon III.aren lehengusua zela jakina da. Azken honek Frantziako



enperadore izan zen bitartean (1852-1870) printze titulua eman zion lehengusuari eta, horretaz gain, diru-pentsio ederraz gozatzeko aukera izan zuen. Horri esker egin ahal izan zituen bere ikerketa linguistikoak, euskarari dagozkionak batez ere. Duvoisinentzat ere 1.000 liberako laguntza lortu zuen, bere itzulpen-lanen saritzat. Dena den, gobernu aldaketa baten ondorioz, lan saria 600 liberatara murriztu zioten eta kenduko ote zioten beldurrez printzeari idatzi zion 1860/06/16an: «Ma pension littéraire a-t-elle été supprimée?» Napoleon III.ak agintea galdu eta III. Errepublikak etorri zenean, diru arazoak areagotu egin ziren L. L. Bonaparte nahiz Duvoisinentzat. Honi Jules Ferry politikoa ospetsu eta Hezkuntza ministroak gehiago murriztu nahi izan zion pentsioa 1879an eta gogor borrokatu behar izan zuen kapitainak zeukan apurrari eusteko.

Osasun arrangurak gainera

1860ko udan hasita osasun arazoak ukan zituen. Esku ezkerra erabili ezinik, bere lanetan atzerapena bildu zuen: «Un mal affreux a martyrisé ma main gauche. Tout

un mois perdu.../...» (1860/08/13an). Udazkenean gauzak makurtu ziren, ibili ezinik baitzegoen, hezueriak jota: «Si Dieu et le rhumatisme me pardonnent, je marcherai» (1860/11/9an). Eta 1861eko otsailean, lanean hasi orduko, logalea nagusitzen zitzaion «.../... il me suffit de me mettre au travail pour être accablé par une somnolence malade».

Buruhauste hauek guziek egiazki kezkatzen zuten, hitzeko gizona baitzen eta agindutako epearen barruan lanak bukatu ezinak min ematen zion: «Je n'ai pas rempli ma tâche dans cinq ans» eta, duintasunez, 1864/01/20an, printzea otoiztu zuen pentsioa kentzeko «en cessant de me faire une pension .../... que j'ai dû accepter dans un temps où j'étais entouré d'embarras».

Bestalde, printzeak bere kabuz Biblian egin zituen grafismo aldakuntzak ere ez zitzaizkion gehiegi gustatu itzultzaileari. Bihotz ximikoen sendatzeko edo, bere langile zintzoa ikustate batez saritzeko «Légion d'honneur» Frantziako izendapen gorenaz ohoratu zuten. Eta, azkenik, 1865eko martxoaren 27an 1.374 orrialdetako euskarazko lehen Biblia bikaina Londresen agertu

zenean osorik, lasaitu ederra eta poz ikaragarria hartu zuen gure ainhoarrak.


AZKEN URTEAK

Pentsioarengatik gertatu gorabeheren ondotik, Duvoisinek gaitz sakonagorik jasan zuen: emaztea zendu eta alabak ezkondu ta bakardade sakona sentitu zuen. Horregatik-edo pentsatu zuen herriz aldatzea.

Bardozetik Ziburura

1882ko uztailaren 6an afektiboki gaizki da; urte askoan egoitza izan duen barnealdeko Bardozeri adio erran eta kostaldeko Ziburura aldatzen da; hori bai, euskararengan aurkituko du kontsolamendu apur bat: «... eta orhoitzapen ilhunak nituen lekhitik urrundu. Ziburura ethorri naiz deskantsu zerbait izan ustean. Bainan, deskantsu baten izateko, nahigabeen ahanzteko, gizonak behar du maite duken lanari berriz lothu. Zer nuen eskara baino maiteagorik?».

Ziburun «Ithurri zahar» karrika muturrean iragan zituen azken urteak, osagarriz makal.



Pierre Haristoy aihertarra Duvoisinin adiskide mina Ziburuko erretore zegoena



«Jean Duvoisin homme de lettres» grabaturik Ezpeletako harlauzan. Zerrendan deitura hori daukan bakarra dugu

Ziburun zendua, Ezpeletan ehortzia

Ziburun harrapatu zuen heriotzak 1891n 81 urterekin eta amaren familiako hobian ehortzi zuten Ezpeletan.


DUVOISINEK UTZI ZIGUN ONDAREA

Pierre Haristoy (1833-1901) sortzez aihertar apezaren lagun mina egin zen eta

hari utzi zizkion bere eskuizkribu eta bestelako materialak. Haiek baliatu zituen Haristoyk kapitainaren bizitzaren eta lanen berri emateko hainbat aldizkaritan. Halaber, Duvoisin hil ondoan, 1891tik goiti, J. B. Daranatz (1870-1945) kalonjea lagun publikatu zituen *Imitazionea* eta *Ebanjelio Saindua*. Duvoisinin hiztegia eta kantutegia (berak idatzitako olerkiak ala konpilatzaile gisa moldatuak?), ordea, ez dira egundaino plaza-ratuak izan.


Duvoisin laikoak lortu zuen Biblia edo *Vulgata*ren lehen itzulpenaren egitea. Familia dirudunean sortu, hazi eta altxatua izan zen Duvoisin, bere garaiko jende jakintsu eta boteretsuekin elkarturik ikusten dugu bizitzaren urrats ezberdinetan.

Eskolatzeko aukera ukan zuen, baina bere jakin-minari eta adimenari esker, batez ere, zen jakintsu bihurtu. Lan baldintza egokiak erdietsi bazituen ere, ez zen penarik gabeko lana izan. Lan ikaragarria zen intelektualki bai eta fisikoki ere. Bost urtez egitea pario harrigarria zen! Egia da haren leloa «Laboremus» («Lan egin



Pierre Haristoyk Duvoisin-en gutun andana eta obrak ezagutarazi zituen

dezagun») zela. Baina nortasun azkarreko gizonak sendo iraun zuen eman hitzaren betetzeko, hiztegi gutxi eta ordenagailurik ez zen denboretan. Bere garaiko intelektualentzat euskararen aldeko urrats paregabekoa izan zen, argi utzi baitzuen «Ezina ekinez egina» dela.



Biografia zehatz batean, lagun minaren irudi hau eskaini zigan

Egun inoiz baino aukera gehiago dugu Iparraldeko euskal idazle garrantzitsu honen obra ugaria irakurtzeko. Gorago adierazi diren edizio modernoek gain, aipatzekoak dira La Gran Enciclopedia Vasca argitaletxeak Lino Akeseloren aitzin-solasarekin 1972an atera zuen *Bible Saindua*

ren edizio berria hiru tomatan; eta Euskal Editoreen Elkartearen «Klasikoak» sailean agertutako *Laborantzako liburua* (1986) eta *Liburu ederra* (1987) obren argitalpen moderno eta txukunak. Eta ezin

ahantzi, jakina, Susa argitaletxearen interneteko «Armiarma» literatura sareko «Klasikoen gordailua» izeneko txokoan Duvoisinin obrarik gehienak irakur daitezkeela osorik.



Duvoisinek Ziburuko «Ithurri zahar» karrikan iragan zituen azken urteak, osagarritz ahul

BIDOGULLEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco